

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

70eko hamarkadako eragina; bizipenak, gaurkoak

Ez dakit Donostialdeko hirukote honek kaosaren gainean surfean egiten ba ote dakien, baina argi dut beraienzat musika, eta ezinbestean rocka, ia guztia direla; gustuko dituzten taldeen antzera, muturrean bizi dute hori. Beraien estreinako diskoa punk-rockeroagoa bazen ere, oraingoan hard-rockaren ur zabaletan barreiatu dira, eta emaitza borobilagoa eta sendoagoa da. Punk-rocka eta ostia txarra ez dira desagertu, eta heltzen diotenean amorrua eta intentsitatea bistan daude, baina badira bestelakoak: esaterako, Deep Purple edota Hendrixen pareko pasarte psikodelikoak. Bestela, 70eko hamarkadako arima ikur hartu dute, eta euskaraz abestutako hitzetan agerian uzten dute amorratuta eta bizi-bizirik daudela. Atzera egiteko edo begiratzeko inolako asmorik ez dute.



Tryphylon
Surfin Kaos

GAZTELUPEKO HOTSAK

Iraupena: 45'26"
14,95 euro

SURFIN KAOS

«Egunero saiatzen gara zuzentasunaren marra esnifitzen, edo zakarretara botatzen, nahiz eta oso zaila izan»

“Momentu erraldoiak, transmisioa dutenean”. Badago nahikoa feed-back Euskal Herriko ikusle hotzekin?

Badago bai, hala ere ikusleek beraien aldetik gehiago emango balute, askoz ere gehiago disfrutatuko luketela uste dut.

Amets hiltzaileak. Zein da horri buelta emateko edo kontra joateko modua, “a lo bonzo” egitea?

Hitz hauek Xabier Silveirarenak dira. Hitz gogorrak, baina benetakoak, mundua horrela dago.

Heriotza hainbat abestitan dago presente. Muturrean bizi-zeagatik, horrenganako obsesioen bat daukazue?

Ez daukagu obsesio berezirik heriotzarekin, baina

musika sentitzen dugun erarengatik eta bizi dugun gizarte honengatik erortzen gara pentsamendu horietan: kontsumismoa, konformitatea, gizartearen heriotza...

Zerri nahi dut. Bizitzari azken tanta atera behar zaio? Euskaltzaindiak onartzen al du esamolde hori?

Bizi garen gizartean ez dugu beste irtenbiderik. Noiz-behinka burua galtzeko beharra izaten dugu, estresa, lana edo arazoak direla eta. Euskaltzaindiak agian, onartu beharko luke.

Transmisio sonikoak kantuan eta diskoaren izenburuan sumatzen da arrasto hendrixiano eta lisergiko bat...

Kantu hori hainbeste miresten dugun Jimiri eskainia dago eta diskoaren izenburuak “hirusta” esan nahi du grezieraz. Hiru pertsonalitate diferentz osatutako taldea garelako.

Musikaz eta jarreraz makarrak zarete: “zuzentasunaren marra” aspaldi esnifatu zenuten?

Makarrak bizitzaren aurrean, horren isla dira gure jarrera eta musika. Egunero saiatzen gara zuzentasunaren marra esnifitzen edo zakarretara botatzen, nahiz eta oso zaila izan.

Ez al ziren ba Hot Dogs!-ekoak Euskal Herriko Gaueko erre-ginak? Destronatu nahi dituzue?

Kantu hori gure lagun minak diren Usua eta Idurreri eskainia da. Hot Dogs!-eko lagunek beti izango dute tronu hori beraienzat, nahiz eta batzuetan gure lagunekin partekatu.

